



URTEKO KUDEAKETA PLANA 2025/2026

Euskadi enparantza 1
20.210 Lazkao
(Gipuzkoa)



SARRERA

LTME (Lazkao Txiki Musika Eskola), 1995.urtean sortu zen Lazkaon, kultura musikala bultzatzeko helburuarekin eta irabazi asmorik gabe. Lazkaoko eta Ataungo herriei, eta ingurukoei musika hezkuntza sendo eta egokia eskaini eta zabaltzen dion musika eskola gara.

Musika Eskolaren helburua irakaskuntza musikala Lazkaoko eta Ataungo biztanleria guztiaren esku ipintzea da; honela, musika bizi daiteke lagunartean, kalean, eskolan eta etxekoen artean ere.

Bertako irakaskuntza haur guztiei (0 urtetik hasita) eta helduei zuzenduta dago, eta helburua edozein instrumentu jotzen ikastea da, profesional mailara iristeko ezinbesteko beharrik gabe, nahiz eta ikasleak nahi izanez gero, aukera daukan maila profesionalerako irakaskuntza jasotzeko.

HELBURUAK

Lazkao Txiki Musika Eskolak honako helburu orokorrak hauek ditu:

1. Gizarteak luze-zabal eskatzen duen musika-kultura praktikoari erantzutea, hain zuzen musikalazeak horren bidez bere burua hobetzea

eta bere kultura eta adierazpidearen altxorra handitzea bilatzen baitu, bere buruarekin eta inguruarekin oreka handiagoa izateko.

2. Herriko eta eskualdeko musika tradizioak bildu, taxutu eta zabaltzea, ikastetxea kokatuta dagoen herriko kultura nortasunaren gune bilakatuz.

3. 4. Arautu gabeko eta oinarri-oinarrian praktikoa den musika-irakaskuntza eskaintzea, batez ere taldekako musika egin ahal izateko.

Eskolaren helburu nagusia edozein adinetako zaletuei tradizioan eta joera berrietan oinarritutako musikaren alorrean prestakuntza praktikoa ematea da, gaitasun eta bokazio berezia erakusten dituztenak lanbide-ikasketara bideratzeko eta prestatzeko zeregina alde batera utzi gabe.

5. 6. Ikaslearen partaidetza sustatu behar da batetik, bai bakarka eta bai taldean, eta bestetik ikastetxearen eta berau errotuta dagoen gizartearen arteko loturan.

Estilo anitzeko kontzertu emanaldietara joateko gogoia piztea eta izpiritu kritikoa bultzatzea.

7. Irakasleen etengabeko perfekzionatzearen bidez irakaskuntza tekniken hobekuntza sustatzea.

8. Hezkuntza orokorreko ikastetxeekin harremanak izatea, hauetan musikarako hurbiltasuna bultzatzeko.

9. Musika kontuak orokorrago ulertu ahal izateko ezinbesteko diren gutxieneko gai teorikoak emango dira eta ikasleak gaiak sakonago lantzeko premia duen heinean berak horrela eskatuta, hauek ere eskuragarri izango ditu.

10. Musika-jardueren artean dauden aukera guztiak eskaintzea: musika klasikoa, antzinakoa, moderno, tradizioan oinarritutakoa, herrikoia, joera desberdinetakoa, rock-a, jazz, elektronikako musika,...

11. Irakaskuntzako egitarauak ikaslearen interesari, emanari eta martxari egokituko zaizkio, baina hauek, beraiek jasotzen dituzten irakaskuntzei probetxu egokia ateratzeko gutxieneko baldintzak bete behar dituztela ahaztu gabe.

12. Estilo guztietako musika entzuteko gogoia indartzea eta kritikarakogaitasuna garatzea, bai ikasleengan eta baita herritarrengan ere.

13. Irakaskuntzarako tekniken hobekuntza sustatzea, irakasleak etengabe hobetuz eta egunean jarritz

IKASLEENGAN GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

Eskolak eskaintzen dituen irakaskuntzak ikasleengan gaitasun hauek garatzen lagunduko dute:

- Musikaren hizkera eta bere terminologia zehatza ezagutzea. Partiturak irakurtzeko eta idazteko gai izatea.
- Buruz jotzea eta dagokion mailan inprobisatzea, instrumentu bakoitzaren helburu zehatzen arabera.
- Musika-lanak entzuten gozatzea, aberaste kulturalerako eta plazer pertsonalerako, gustu musikalak zabaltzeko.
- Musika taldeka interpretatzea, beste ahots edo instrumentuak entzurera ohituz eta taldera egokituz.
- Musika jende aurrean egitea.
- Musikak, herrian eta pertsonen garapenean duen garrantzia kontuan hartzea.

LANDUKO DIREN METODOLOGIAK

Eskolako irakasleek eskaintzen duten irakaskuntzak ezaugarri hauek ditu:

Aktiboa: Ikaslea da prozesuaren erdigunea. Mugitu, abestu, jo, dantzatu, sortu... egiten du, ez da informazioa jasotzera mugatzen, bere ezagupena sortzen du.

Norbanakoari zuzendutakoa: Petsona bakoitzaren interes, nahi eta gaitasunetan du oinarri.

Gizarteratzailea eta kooperatiboa: Talde lana eta taldeetan parte hartzearekin, bertan sortzen diren harreman pertsonalei balioa emanaz. Gainera, ikasitakoa entzunaldi, emanaldi eta kontzertuetan aurkezten da.

Sortzailea: Bat-batekotasunaren garapena bilatzen du, inprobisazioa, adierazteko gaitasuna eta originaltasuna alor guztietan landuz.

Dibertigarria: Entreginarria eta atsegina, joko eta beste jarduera ludikoekin eta ikasleak hurbil dituen erreferentziak erabiliz.

Intuitiboa: Imitazioaren praktikarekin, irakaslearekin batera arituz, zentzumenekin bizi izatera bilatzen duena eta horien bidez ezagupen intelektualetara iritsiko dena. 2025-2026 Ikasturteko Plan Orokorra

Konprometitua: Autonomia pertsonalaren garapenarekin inplikaturik, ikasteko ohitura eta tekniken ezartzearekin, "Ikasten ikasi"-rekin eta familien parte hartzea indartuz.

Berritzailea: Irakasleen etengabeko prestakuntzarekin eta helburubakoitzeko egokienak diren jarduerak eta teknologia erabiliz.

Belaunaldiartekoa: Adin ezberdinetako pertsonen integrazioa eta elkarlana errazten duena.

Hekidetzailea: Emakume eta gizonen berdintasuna helburu duena. 2025-2026 Ikasturteko Plan Orokorra

ESKaintza

I. MODULUA

HEZKUNTZA GOIZTIARRA
MUSIKA ETA MUGIMENDUA I
MUSIKA ETA MUGIMENDUA II
MUSIKA ETA MUGIMENDUA III
HASTAPENA
II. MODULUA
HIZKUNTZA MUSIKALA I

HIZKUNTZA MUSIKALA II
HIZKUNTZA MUSIKALA III
HIZKUNTZA MUSIKALA IV
GAZTEEN HIZKUNTZA
HELDUEN HIZKUNTZA
3. ADINA MUSIKA

III. MODULUA

1. URTEA
2. URTEA
3. URTEA
4. URTEA 2025-2026 Ikasturteko Plan Orokorra

KONTSERBATORIORAKO PRESTAKETA

PRESTAKETA

MUSIKOTERAPIA

MUSIKOTERAPIA

ESPEZIALITATEAK INSTRUMENTUAK

GITARRA
GITARRA ELEKTRIKOA
BAXUA
PIANO TEKLATUA

SOINUA
TRIKITIXA
PANDERO ABATERIA-PERKUSIOA
KANTUA

ZEHARKAKO XIRULA
BIOLIÑA
BIOLONTXELOA
SAXOFOIA
KLARINETEA
TRONPETA
TRONBOIA
BONBARDINOA
TALDEAK

KORUA
KONBOA
TALDE INSTRUMENTALAK
XIRULA TALDEA
BIOLIN TALDEA
TRIKI TALDEA

IRAKASLEGOA

IRAKASLEA IKASGAIA

Maria Rodriguez H.Goiztiarra, Tailerrak,
3.Adina eta Pianoak

Alfredo Pelaez Teklatuak

Beñat Barandiaran Gitarra, Gitarra
Elektrika, Bajuak, Konboak, Armonia

Lurdes Lerma Hizkuntza Musikala eta
Soinua

Nagore Imaz Zeharkako Xirula, Flautiña,
Informatika Musikala

Joseba Loinaz Pianoa, Talde Instrumental
eta Konboak eta Historia eta
Analisia

Nerea Barandiaran Tailerrak, Hizkuntza
Musikalak eta Pianoak

Erika Alvarez Gitarra eta Gitarra
Elektrikoak

ADMINISTRAZIOA

Zuzendaria Zuzendaritza taldea

Idazkaria Garbiñe Ayerza

ZUZENDARITZA TALDEA

Zuzendaritza taldea lau pertsonen osatua dago: Beñat Barandiaran, Nerea Barandiaran, Garbiñe Ayerza eta Uxue Kerejeta.

EBALUAZIOAK

Eskolak bi ebaluazio finkatzen ditu: 1. Ebaluazioa, Irailetik-abendura

Eider Tolosa Trikitixa, Panderoa eta
Taldeak

Garbiñe Berakoetxea Biolina eta Biolin
Taldea

Mikel Arrieta Gitarra eta Gitarra
Elektrikoa

Jon Zaldúa Kantua, Bateria eta Taldeak

Ainhoa Urkizu Hizkuntza Musikala,
Saxofoia eta Klarineta

Kimetz Galarraga Hizkuntza Musikala eta
Pianoa

Javi Arrondo Tronpeta eta Tronboia
Iñaki Prieto Bioloncelloa

2. Ebaluazioa, urtariletik-maiatzera

Instrumentuan dabilten ikasleen tutorea instrumentuko irakaslea da, Instrumentuan ez dabilzanena berriz musikako irakaslea izango da.

Lehenengo ebaluazioaren amaieran, irakasle bakoitzak MusikaGest aplikazioaren bidez, noten txosten bat beteko du 18 urtez azpiko ikasleentzat. Egokia ikusten bada, guraso edo tutoreekin bildu, irakasleak edo gurasoak eskatuko balu. Txosten hau inprimatu eta ikasleari entregatzen zaio, gurasoek sinatuta itzuliko dutelarik musika eskolara.

Bigarren ebaluazioan berriz, Maiatzean, 18 urte azpikoen gurasoekin bilera presentzialak egingo dituzte tutoreek.

Ikasle batek 3 klaseetara jarraian huts egiten badu justifikatu gabe, irakaslea harremanetan jarriko da tutorearekin.

Ebaluazio bakoitzean gutxienez %75eko asistentzia izatea eskatzen da ikasgaia gainditu ahal izateko

EKITALDIAK

2025/09/13 GERRIKO GARAGARDO FESTA KONBO TALDEA
 2025/09/21 BASHERRI EGUNA TRIKITILARI ETA PANDEROJOLEAK
 2025/11/14 GERONTOLOGIKOAN EMANALDIA PIANOKO IKASLEAK
 2025/11/19 SANTA XEXILI EGUNA MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK
 2025/12/3 EUSKARAREN EGUNA MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK
 2025/12/12 eta 16 GABON KONTZERTUAK MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK
 2026/02/25-27 MUSIKALDIA MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK
 2026/03/07 TRIKI JAIALDIA TRIKITILARI ETA PANDEROJOLEAK
 2026/05/11-15 MUSIKA ASTEA MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK
 2026/06/04 KONBOEN KONTZERTUAK KONBO TALDEAK
 2026/06/17 DIPLOMA BANAKETA MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK

MATRIKULAZIO BALDINTZAK ETA DATAK

2026-2027 ikasturteko matrikulazio datak ondorengoan izango dira:

- Barne matrikulazioa 2026ko maiatzak 11tik 19ra
- Kanpo matrikulazioa 2027ko maiatzak 21tik 28ra

ORDUTEGIEN ANTOLAKETA

GELA BANAKETA

Lazkaoko musika eskolan 12 gela dauzkagu eta Ataungo Gabilenean 2 gela. Erabilera anitzekoak dira ikasgela hauek:

LAZKAO:

1. 2. Gela: Pianoa, musikoterapia, triki taldea

Gela: Hizkuntza goiztiarra, tailerrak, biolina, tronpeta, trikitia, panderoa, kantua.

3. Gela: Hizkuntzak, gitarra.

4. Gela: Hizkuntzak, pianoa, biolina.

5. Gela: Hizkuntzak, pianoa, saxofoia eta klarinetea.

6. Gela: Pianoa, triki, panderoa.

7. Gela: Trikia, panderoa.

8. Gela: Gitarra, zeharkako txirula.

9. Gela: Bateria, kantua, panderoa.

10. Gela: Talde instrumentalak, konboak, kantua, panderoa.

11. Gela: Gitarra, biolontxelo.

12. Gela: Gitarra.

ATAUN:

1. Gela: Pianoa, gitarra.

2. Gela: Hizkuntzak.

Ordutegien banaketa, hizkuntza eta musika eta mugimenduetako ordutegiak, zuzendaritzak jarri eta gurasoei email bidez bidaliko zaizkie. Instrumentu eta taldeetako ordutegiak berriz irakasleak jarriko ditu ekaineko

hilabetea.2025-2026 Ikasturteko Plan Orokorra

BULEGO ETA ZUZENDARITZA ORDUTEGIAK

Zuzendaritza taldea astearte eta ostegunetan bilduko da, eguerdiko

15:00etatik 16:30ak bitartean. Norbaitek zuzendaritzarekin bildu nahiko balu, kontaktuan jarri eta ordu bat zehaztuko genuke.

Bulego ordutegia, astelehenetik ostegunera goizeko 11:00etatik 18:00etara izango da.

2025-2026 Ikasturteko Plan Orokorra

LTME